

Liburuak

KRITIKA

Rita eta hilobi-lapurak. Testua eta irudiak: Mikel Valverde. Itzulpena: Juan Martin Elexpuru. Elkar. 68 orrialde. 8,75 euro.

Haur eta gazte literatura

Xabier Etxaniz Erle



Abenturak faraoien lurraldean

RITA SAILEKO hirugarren entrega dugu hau eta aurreko bietan bezala (*Rita tenislari* eta *Rita poloan*), honetan ere, Valverdek asmatutako neska dugu protagonista nagusia. Oraingoan, gainera, izenburuak iradoki dezakeen moduan abenturaz osaturiko liburu baten aurrean aurkitzen gara.

Rita Egiptora joan da bertan dagoen osaba Danielekin indusketa arkeologiko batean parte hartzeko asmoz. Aireportuan, baina, okertu eta bere bila joan denarekin elkartu beharrean beste batzuekin egiten du bat neskatoak. Gizon-emakume hauek indusketara doaz baina, Ritaren ustearen kontra, ez osabari laguntzera, lapurtzera baizik.

Mikel Valverdek, aurreko liburuetan bezala, testua eta irudia erabiltzen ditu istorioa kontatzeko —irudia elementu osagarri gisa erabilia, egia esan— eta narratzaile orojakilearen bidez irakurlearen arreta erakartzea lortzen du. Hasiera-hasieratik jakingo dugu Rita okerreko gizon-emakumeekin joan dela eta, horrela, adi-adi jarraituko dugu neskato bitxi eta azkarraren jokabidea okerraz oihartu arte eta handik aurrera.

Abenturen ohiko topikoak eta elementuak erabiliz, Valverdek liburu entretenigarria egin du, hori bai, sinesgarritasun aldetik badira txiripa gehiegi, baina antzinako filmetan bezala —eta badu horietatik liburu honek— garrantzitsuena ez da egia edo gezurra, sinesgarria izatea edo ez, kontua da irakurlea gustura egotea, liburuaren zurrumbiloan sartzea eta Ritaren lokarri gero eta luzeagoarekin eginiko korapilo gero eta handiagoan nola harrapatzen den —“Orain, suaren argitara ikusita, Salim, Carlsson eta Paponet andereñoaren aurpegiak jende maltzur eta gaiztoarenak begitandu zitzaizkion Ritari. Lapurtalde beldurgarri bateko kideen aurpegiak ziren! Eta bera ere... talde horretako partaide zen” (41. or.)— eta, ondoren nola askatzen den ikustea intriga eta tentsioa askatze horren parte direlarik: “Denbora oso mantso pasatzen zen, oso mantso, eta mantsoa zen gameluaren ibilera ere hondar-zelai ikargarri hartan” (50. or.).

Egia esan Ritaren liburu honek, Garmendiaren abenturek eta estilo horretako beste batzuek bezala, badu abenturazko klasikoaren usaina, badu duela 50 urte eginiko pelikulen antza, nahiz eta gaur egungo irakurle gazteek horren berri ez izan. Baina bai kasu batean bai bestean une atseginak igaroarazten ziguten/digute. Eta horretan, egilearen lana bezain garrantzitsua dugu itzultzailearena kasu honetan, Elexpuru eduki asmatu baitu euskal irakurlearen mailara egokitzen lana, liburu entretenigarri honen itzulpen ederra eginetz. ■

Etorkin izateari buruzko gogoetak Hemen-en

Hemen erlijio gogoetarako aldizkariak “Zu ere etorkin izan zinen” dio azkeneko zenbakiko azalean. Horixe baita 23. zenbaki honetan gogoetarako hautatu duten gaia: immigrazioa. Horri buruz idatzi dute sei adituk, nork bere talaiatik. Ramon Irizarrek eta Xabier Pikazak ikuspuntu teologikotik landu dute gaia; Argitxu Camusek Amerikako euskaldunei buruz izkiriatu du; Xabier

Aierdik etorkinez eta kultur-aniztasunaz; Arturo Garcia Luciok gaia testuinguru historiakoan kokatu du; eta Jean-Baptiste Akulaa Diattak eta Ida Ninisse Diattak Senegaldik Euskal Herrira etortzeaz hitz egin dute. Zenbaki honetan zuzendari berria estreinatu du *Hemenek*: Joxemari Arza-luz ariko da Joxe Arregiren partez. ■




Hemen.
Batzuen artean.
Frontera.
110 orr.
28 euro
(harpidetza).

Zer dakizu burmuinari buruz?

Gaiak argitaletxeak Francisco José Rubiaren liburu bat euskaratu du: *Zer da zure burmuinari buruz dakizuna?* 60 galderari, 60 erantzun. Liburuak gida ona izan daiteke askotan bururatu izan zaizkizun, eta inork erantzuten asmatu ez dizkizun galdera horientzat. Berbarako: Zergatik egiten dugu amets? Egia al da koloreak usaintzen dituzten pertsonak daudela? Benetan gure adimen-ahalmenaren %10 baino ez dugula erabiltzen? Ezkertiak inteligentegoak ote dira eskuinak baino? Rubiak liburuan emandako azalpenei esker jakingo dugu galdera eta teoria horietako

batzuk erabat faltsuak direla... baina batzuk egiazkoak ere bai. ■



Zer da zure burmuinari buruz dakizuna?
Francisco J. Rubia.
Gaiak.
272 orrialde. 22 euro.